

KOSTUEN EGITURA

Gaur egun ospitaleetako oheak 1.600€ inguru balio dutela ikusirik, gure ohe innobatzaileari ezarriko diogun prezioa pixka bat altuagoa izango da, 2.000€-koa hain zuzen.

Esan dugun bezala, gure makinak pabiloi baten kokatuta egon beharko dira, eta pabiloi hau alokatu egin beharko dugu.

Gure produktua osatzeko lan gehiena makinek egingo dutenez, hasieran diru gehiena hauetan xahutuko dugu. Hauek kostu aldakorrak izango dira, gero eta ekoiztu nahi bada, orduan eta elementu gehiago behar izango direlako.

Makinaz gain, langileak ere egongo dira produktuaren muntaketan. Hauek kostu finko bat izango dute hasieran, eta beraien lanaren arabera eta produkzioaren arabera, soldata igoerak jasoko dituzte. Langile talde bakoitzaren lana kontuan izanda, soldata ezberdinak izango dituzte.

Makinak eta bulegoak edukitzeko behar dugun enpresa poligono industrial baten kokatuko dugu. Hau lortzeko alokairu bat ordaindu beharko dugu hileru. Honek ere kostu finko bat izango du. Baina zenbait hilabetetan argi eta ur kontsumoak kostuen aldaketak sortuko dituzte enpresan.

Instalazio hauek izateak kostu hauek sortuko dizkigute:

- **Makinak:** makinaren gutxi gora-beherako prezioa 25.000€-koa izango da.
- **Alokairua:** alokatuko dugun pabiloiaren kostua 500.000€ ingurukoa izango da.
- **Langileen soldata:** soldata minimoa 1.400€-koa izango da.
- **Informazio-prozesuetarako instalazioak:** Ordenagailu bakoitzaren prezioa gutxi gorabehera 800-1.000€ artekoa izango da. Gainerako instalazioen prezioa 500€ ingurukoa izango da.
- **Argia, elektrizitatea, ura:** honen prezioa gure erabilpenaren arabera igo edo jaitsi egingo da.

Hauek guztiekin batera, gizarte aseguratza eta bestelako laguntzak ordaindu beharko ditugu.